

Kostuen egitura

Gure proiektua aurrera eramateko kostu askori egin izan beharko ditugu aurre. Haien artean kostu mota ezberdin ugari daude: zuzenak, zeharkakoak, finkoak, aldakorrak, gizartekoak...

Hasierako inbertsioa

Diru iturrietan aipatu genuen bezala, aurrera eramango dugun negozio mota ikusita, inbertsio handia egin behar dugu lokala eta erabiliko dugun material guztia eskuratzeko. Gure egoitzarako egin dugun inbertsioa, alde batetik, **LaCaixak** emango digun mailegua da, eta, bestetik, gure aurrezkietatik eta txakurrak paseatzetik lortu dugun **funts propioa** erabiliko dugu. LaCaixak guztira 50.000 euroko mailegua emango digu eta gure aurrezkietatik 25.000 euro erabiliko ditugu, azkenean hasierako inbertsioa **75.000 eurokoa** izango delako.

Kostu motak	Kostuak
Zeharkako kostuak	Elikadura, higiena, osasun zerbitzuak, jostailuak eta entrenamendu ekipamendua
Kostu zuzenak	Langileen formakuntza
Finkoak	Soldatak, alokairua eta albaitaritza zerbitzua
Aldakorrak	Hornikuntzak, janaria, materiala, jostailuak eta higiene produktuak

Zeharkako kostu

Zeharkako kostuak produktua, edo zerbitzua gure kasuan, zuzenean erlazionatuta ez dauden kostuak dira elikadura, higiene produktuak, jostailuak... bezala. Txakurren **elikadurak** barne hartzen du janaria erostea, pentsua, latak eta snackak, baita dieta bereziak dituzten txakurrentzako elikagai espezifikoak ere. **Higieneari** dagokionez, xanpuak, bainurako produktuak, hondakin-poltsak eta garbiketa-produktuak erabiltzen dira.

Albaitariaren atalean txakurren **osasunerako** beharrezkoak diren zerbitzu eta zainketa medio guztiak sartzen dira. Zuzeneko arretako langileek barne hartzen dituzte zaintzaileen, paseatzaileen eta higieenez arduratzen diren langileen soldatak, baita aparteko orduekin edo langile gehigarriekin lotutako kostuak.

Beste zeharkako kostuak **jostailuak**, atsedenerako altzariak eta entrenamendu-ekipamendua dira. Hornidurak argiztapena, berokuntza eta ura hartzen ditu, eta larrialdietarako ustekabeko gastuetarako funtsak aurreikusten dira.

Kostu zuzenak

Kostu zuzenei erreparatuz, gure enpresak ez ditu produkturik, ondorioz ez ditugu **ia kostu zuzenik**. Gainera, gure zerbitzuaren maskotak ez ditugu inon erosten, **kalean abandonatutako txakurrak** baitira eta gure bezeroek zaintzeko ekarritakoak. Horrek egiten du sozietatea laguntzea kostu handirik gabe. Gure enpresa hautatutako erabakia aurrera eramaten dugu txakurtegiak laguntzeko. Maskota askok bizi maila oso baxua dute eta hauek erosten ez ditugu laguntzen.

Hala eta guztiz ere, gure langile batzuk, txakurrekin kontaktuan daudenak, **formakuntza** jasoko dute. Formakuntza hau kostu zuzena da gure **maskotekin kontaktu zuzena** mantenduko dutelako eta haien ongizatea handituko duelako.

Kostu finkoak

Gure enpresak dituen kostu finkoak hilabete guztiak berdin mantentzen diren kostuak dira. Haien artean soldatak, alokairua eta albaitaritza zerbitzua topa ditzakegu. **Soldatak** kostu finko bat dira hilabete guztietan langileei berdina ordaitzen ditugulako. Honekin lotuta, **aseguruak** topa ditzakegu. Langileei eta alokairuagatik kontratatzen ditugun aseguruak kostu finko bat dira beti direlako berdinak.

Bestalde, **alokairua** kostu finko bat da ez delako aldatzen, lokala beti da berdina eta horregatik ordaintzen dugun dirua berdina baita.

Azkenik, beste kostu finko bat **albaitaritza zerbitzua** da. Hilabetero albaitari berdina etortzen denez, soldata finko bat izango du hilabetero ordainduko duguna. Hala ere, larrialdi bat izatekotan, albaitaria deituko dugu plus bat ordainduz, baina hori ez da kostuetan biltzen.

Kostu aldakorrak

Gure enpresak dituen kostu aldakorrak hilabete guztiak desberdin ematen diren kostuak dira. Haien artean hornikuntzak, janaria, materiala, jostailuak eta higiene produktuak topa ditzakegu.

Hornikuntza, hilero ematen diogun erabileraren arabera, ez dugu ur bera edo argi bera gastatuko hilero; bestalde, janaria ere alda daiteke, hornikuntza baino gutxiago ziurrenik. Bestalde, jostailuak eta materialak behar direnean birjartzen joango dira, hau da, hilabeteak eman ahal izango ditugu gastatu gabe, eta hilabete barru biltegira itzuliko dira. Eta higiene-produktuak hilero erabiltzen baditugu ere, baliteke bezeroen denboraldi altuagoak eta baxuagoak egotea.

Horrekin lotuta, denboraldirik altuenetan askoz ere langile gehiago falta zaizkigu, eta horrek esan nahi du soldata gehiago izango direla ordaintzeko. Aitzitik, behe-denboraldietan, ez dugu hainbeste langile beharko, eta ordaindu beharreko soldatak txikiagoak izango dira.

Gizarte kostuak

Gure enpresaren kasuan ez dugu inolako gizarte kosturik, gure enpresak **zerbitzu** bat eskaintzen duelako. Gizartearekin dugun harremana ez da kostua, baizik eta gure zerbitzuaren bidez **gizartea hobetzen** dugula. Alde aldetik, txakurren abandonua murriztea lortzen dugu eta, aldi berean, haien osasuna hobetzen dugu. Bestalde, gizartean komuna den arazo bat konpontzen dugu, adinekoek bizi duten bakardadea. Laburbilduz, gure zerbitzuak gizartean ohikoak diren arazoak konpontzen ditu, eta hori da gizartearekin dugun harremana.